

EKIALDEKO TIMOR. Dili hiriburuan eginiko ekitaldian 92 herrialdeko eta Nazio Batuetako ordezkariak izan dira

Independentzia eskuratuta, lehen gobernu osatu du Xanana Gusmaok

Australiarekin baliabide energetikoak ustiatzeko akordio garrantzitsua sinatu dute agintariek

Juanma Sarasola | DONOSTIA

Ekialdeko Timorko Gobernu berriko kideek herenegun herrialdea estatu independente aldarrikatu ondoren, atzo Dili egindako ekitaldian karguen zin egin zuten. Xanana Gusmao presidenteak 90 bat herrialdeko eta Nazio Batuetako ordezkariak izan zituen ondoan, eta milaka herritar aurrean, kontent eta itxaropentsu. Estatu berriaren lehen urratsetako bat, txoil garrantzitsua inondik ere, nazioarteko harremanen oinarriak finkatzea izan zen; era berean, arlo ekonomikoari bultzada handia eman zion, Australiarekin sinatutako baliabide energetikoen gaineko akordio batez.

Ospakizunez beteriko gau luze baten ondoren, ekialdeko timortarrek instituzio berriak martxan jartzeari ekin zioten atzo. Horretarako, lehenik Ekialdeko Timorko Errepublikako Gobernuak karguen zin egin zuen, mundu osoko 92 herrialdeko —estatudun zein estatu gabeko, Sahara kasu— ordezkarien aurrean. NBEko idazkari nagusi Kofi Annan ere bertan izan zen. Hala, Xanana Gusmao presidente izendatu ondotik bere gobernuaren txanda etorri zen, eta jarraian Parlamentua inauguratu zuten.

Lehen ministro Mari Alkatiri bere karguaren zina egin ondoren aditzera eman zuenez, «politika nazionalerako lehentasunak hezkuntza, osasuna, nekazaritza eta azpiegiturak izango dira». Nazioarteko harremanei dagokienez, oraindik estaturik ez duten herrialdeak aintzat har-



FIRIDIA LISNAWATI / AP
Ekialdeko Timorko presidente Xanana Gusmao hitzaldi bat entzuten, atzo, Diliko Parlamentuan.

tuko ditu gobernu berriak. Alde horretatik, Alkatirik azpimarratu zuen herri palestinarren eta sahararraren xede independentziazealeak babestuko dituela. Lehen ministroak esker oneko eleak izan zituen nazioarteko komunitatearentzat, Ekialdeko Timor estatu burujabe bihurtzen laguntzeagatik. «Datozen belaunaldientzat gobernatuko dut», agindu zuen Alkatirik.

Estatu berria hasia da harreman diplomatikoak lotzen. Australiak eremu bat atondu du Canberran Dilik enbaxada eraiki dezan, eta Filipinak eta Vatikanok, besteak beste, atzo ekin zieten dokumentuak sinatzeari.

Akordio ekonomikoa

Estatu berriak arlo ekonomikoa sendotzea izango du erronka

MARI ALKATIRI

Ekialdeko Timorko lehen ministroa

«Politika nazionalerako lehentasunak hezkuntza, osasuna, nekazaritza eta azpiegiturak izango dira»

nagusietako bat. Baliabide energetikoak baditu, franko; ez, ordea, azpiegitura aski. Horretan mesede handia izango da atzo Australiako Gobernuarekin sinatutako akordio ekonomikoa. Horren arabera, Timorko itsasoaren azpian dauden petrolio, gas likido eta metanoa atera eta garraiatuko ditu Australiak; Ekialdeko Timorrek, berriz, ustiatetaren *royalti*-ak jasoko ditu; hain justu, iraba-

zien %90. Adituen ustez, baliabideok 3.846 milioi euro eman go dizkiote Diliri, 2004tik aitzina hogeituz.

Bestalde, Ekialdeko Timorko Parlamentua zortzi konbentzio, tratatu eta estatutu onartzekoa zen atzo.

Gobernu berriak iheslarien auziari ere heldu beharko dio. 1999ko erreferendumean Ekialdeko Timorrek independentziaren alde bozkatu ondoren, 250.000 pertsonak ihes egin zuten Indonesiara, Indonesiako Armadak sostengatutako milizien indarkeriaren ondorioz.

NBEko Iheslarietako Batzordeak iragarri duenez, 40.000 iheslari itzuliko dituzte Ekialdeko Timorrera, eta beste 15.000 Indonesiako uharteetan kokatu.

HITZALDIA

Esker ona eta konpromisoa

Ekialdeko Timorko presidente Xanana Gusmaok esker ona eta pobreekiko konpromisoa azaldu zituen Independentzia Eguneko hitzaldian.

Hemen gaur 92 herrialde elkartzeak erakusten du Ekialdeko Timorko gatazkari aterabidea bilatzea nazioarteko komunitatearen ardura zela.

Esker ona

NBEko idazkari nagusi Kofi Annan eskerrik zintzoena adierazi nahi diogu, timortarren kausan izaniko konpromiso pertsonalagatik. Hala, gu ulertzen ahalegindu zirenei eta ororen gainetik prozesuaren kargu egin zirenei adiskidetasun sakoneko hitzak eskaini nahi dizkiegu.

Indonesiarekiko erlazioa

Indonesiako presidente Megawati Sukarnoputri, zure presentzia zinez eskertzen dugu, ez bakarrik auzoko herrialde senidearen estatuburu trebea zaren aldetik; baita Indonesiako herriaren desio demokratikoen ikurra zarelako ere. Indonesiako eta Ekialdeko Timorko jendeak harreman zaitez beteriko 24 urte bizi izan dituzte. (...) Iraganak ez du gure espirituak lohitzen edo gure jarrerak eta jokaerak eragozten segitu behar.

Portugal

Portugalgo agintariei omen publikoa eskaini nahi nieke, Ekialdeko Timor eta bere jendea haien kausa nazionaltzat hartzeagatik. (...) Espero dut zu [Portugal] eta Portugesez Mintzo diren Herrien Komunitateko senideak gure ondoan izatea bide honetan —zaila baina kitzikagarria—, gure independentzia eta autodeterminazioaren bidean.

Etorkizuna

(...) Pobreak dituen agerpi-de guztien kontrako borroka aktibo eta iraunkorren oinarritutako geroarekiko esperantzaren lekuko zarete gaur. (...) Egun munduko beste herriekin batera berdintasunean kokatzen gara. (...) Gure independentziak ez du baliorik izango Ekialdeko Timorko jendeak pobrezian bizitzen eta zailtasun mota oro sufritzen segitzen badu. Gure bizitzak hobetzeko irabazi dugu gure independentzia.

SOSLAIK

XANANA GUSMAO (Ekialdeko Timorko presidentea)

Poeta, gerrillari eta politikaria



Jose Alexandre Gusmao (Xanana) 1946ko ekainaren 20an jaio zen, Manatuto hirian. Jesuitek ikasi zuen lehenbizi, eta Diliko Institutuan gero. Portugalgo Armadarekin hiru urteko soldaduska egin ondotik, administrazio kolonialean egin zuen lan. 1974an Ekialdeko Timorko poesia saria irabazi zuen. 1975 arte Australian izan zen, Fretilin alderdi independentistako kide. Indonesiaren kontra borrokatu zen gero, gerrillarien buru. 1992tik 1999ra arte preso egon zen.

MARI ALKATIRI (Ekialdeko Timorko lehen ministroa)

Topografo, maisu eta gerrillaria



52 urteko yemendar jatorriko Mari Alkatiri islamiarra da gehiengo katolikoa duen herrialdean. Topografo eta irakasle aritua, erbestean, Mozambiken. Indonesiak Ekialdeko Timor inbaditu zuenetik 1999 arte erbestean ibili zen Fretilin antolatzen —bera izan zen sortzaileetako bat, 20 urterekin—. Gusmao eta Alkatirik ezadostasun politiko ugari dituzte, eta hura presidente hautatu zuten hauteskundeetan boz zuria eman zuela esan zuen. Negoziatzaile gogorraren ospea du.

JOSE RAMOS HORTA (Atzerri ministroa)

Bakearen Nobel sariduna



Ama timortarra eta aita portugaldarra zituen Jose Ramos Hortak, eta heziketa zurruna jaso zuen Soibada herriko misio-eskola katolikoan. Tetunez hitz egiteagatik jotzen eta zigortzen zuten maiz portugesez irakasten zuten maisuek. 1975ean Indonesiaren inbasioaren aurretik erbestera jo zuen, eta Oxforden (Ingalaterra) Nazioarteko Harremanetan lizentziatu zen. Fretilineko Atzerri ministro izan zen denbora labur batez. 1996an Bakearen Nobel saria eman zioten. Sozialdemokrata da.